

MAÑANA GOODBYE

Lehen atala

MAÑANA GOODBYE-ri buruz

Garai bateko tabako fabrika, produkzio moduen aldaketak bultzatuta, gaur egungo Nazioarteko Kultur Zentroaren bilakaera ikertzen duen 12 kapituloko seriea da. Zelatan, bi galdera garrantzitsu: lanari dagokionean, zer behar dugu iraganetik? eta, nola eta nondik hitz egin memoriaren inguruan?

Tabakalera galdera hau eta beste hainbaten ikur da, eta eraikineko espazio txiki bat, Sotoa, bideratu du proiektu hau hartzeko. Bertan, ikus-entzunezko instalazio moduan erakutsiko da seriea. Hile erdialdero kapitulu bat gehituko da, bere irekieratik hasi, irailaren 11an, eta 2016ko irailararte. Proiektua ekintza publiko programa batekin osatuko da.

Lehen atalari buruz

Ez zen izan abentura soil bat. Harreman bat ere izan genuen, ehun urtekoa, baina abiatu bezain laster hasi zen erreka jotzen, alde guztietatik. Azkenean, harenak egin zuen. Hala ere, oraindik ere etorri egiten da, nire etxe inguruan bueltaka ibili, eta beti tratatzen nau bion artean oroitzapen gazi-gozo batzuek gainera besterik balego bezala. Beste hiri batera jotzen dut. Beste mundu batera. Alferrik: segika daukat leku guztietan. "Zelatan dagoela ikusten dugu beti, itzal bat bezala", esan didate nerabe batzuek, zeinak La Estrella tabernan bildu ohi baitira arratsaldean, beren txakur eta guzti. "Nor da?", galdetu dute. Eta nik, jakinik gazteegi direla hura ezagutzeko eta gehienez ere aditzez ezagutuko dutela, esan diet, axola handirik gabe: "XX. mendea da, ez bainau erabat uzten".

Bukaturiko harremanak amets gaiztoa edo amets ona dira, eta egunen batean esnatu egiten gara amets horretatik. Benjaminek desio zuen noizbait esnatu ahal izango ginela botere- eta esplotazio-harremanei kateaturiko gizarte baten amets gaiztotik. Surrealistak kritikatzeko zituen, etengabeko gozamen bihurtzen zutelako ametsa (amets sozial bat). Esnatzea emantzipatzea zen, mitoak eta ideologiak jartzen diguten uztarririk askatzea. Kontua zen, beharbada, adimenaren egun-argiz zabaltzea begiak, Brechtek zabaltzen zituen

bezala pentsamolde berri bati kantatzen zionean, eskatzen zuenean lehen aldi baten ilusioa sentitu ahal izatea beti (liburu baten lehen orrialdea, kanta baten lehen akordeak, egunsentiaren lehen argi-printzak, proiektu baten lehen ideiak). Bitxia da: Cesare Pavese poetarentzat, aldiz, zeinak erne idatzi baitzuen existentziaren nekazari-ikuspegi batetik, "min bizi bat" bezalakoa zen esnatzea. "Hilotz bat: horra esnatze gehiegiren hondakina". Poema hori, hain zuzen, "Fantasiaren amaia" deitzen da.

"Ez dugu bertute hau baino: hasi
egunero bizia —lurraren aurrean,
zeru isilaren azpian—, esnatze baten zain.
Inor harritu da albak halako eginahala eskaturik;
esnatzez esnatze, lan bat egin da".

Lehen atal honetan, tabako fabrikako langile ohiek bere kontakizunetan azpimarraturiko zerbait landu da: lanean sartzea, lanari ekitea. Batzuetan, kontaktzen dutenez, ametsa segika izaten zuten lanean hasteko une horixe iritsi arte. Zer langileri ez zaio halakorik gertatu sekula? Esnatu, hasi oinez, behar bezala dabilen makina bihurtu zure gorputza: horrelako ezer ere ez da erraza, ez berehalakoa. Eta, hala eta guztiz ere, biziki eraginkor jarduten dugu. Horretaz asko dakite, aspalditik, produkzio-sistemen antolatzaileek.